



Miren eta Roberto
Etzebarria

KOLPATUZ

www.robertoetxebarria.eus



www.facebook.com
/roberto.etxebarria.1



@robertoetxebarria



Roberto
Etzebarria

Kopla galaiak

Ilargiak du gandua
ikus izarren gorua
zu bezalako neskatsek dute
zorabiatzen burua

Mertxikak hezur gogorra
arin hegan istingorra
beltxaran: zure gerri zalua
nire sukar eta lorra

Umotu da okarana
dager mardul ta otzana
zure bularrak nire ametsa
urrun katigu darama

Ederra udan hostoa
naharo dago basoa
zure sutean kikkal-xamurra
nire maitasun-lastoa

Erbia jauzika landan
zezena urduri langan
nahiago nuke, sorgin, ahal banu
zurekin jostatu galdan

Haritzak gogor ezpala
pagoak zabal itzala
gogo etsiaz dagizut neure
azken agur-diosala

Mendian zital bisutsa
oihan-bakardade hutsa
han nagoela nahi izaten dut
hiriko hotsa eta hautsa

Iturritik dator ura
elkitzea bai tristura
pausalekurik ezin ukana
bidaztiaren malura

Ederra elur-maluta
jantzi hauskor xuri du-ta
bizi naizeho ez da galduko
nik zutaz dudana gomuta

Koloreak

Ortzadar baten kabitzen al da
munduaren kolorea?
gorri, laranja, hori, berdea,
urdina eta morea

Lurra planeta urdina deitzen
zutenik zeinek sinestu?
berdea, asfaltoz gris geratu da
urdina zaborrez belztu

Naturaz gaindi planeta batek
idealak behar ditu
gorria diruz larrostu da ta
morea kolpez gorritu

Ortzadar bat da argi zuri bat
tanta bat zeharkatzean
zurikeria ere, ez al dago
maiz koloreen atzean?

Triboko landan I.

Artakamara motxolinoa
domingiloa lepoan
honekex jaiok pasau artean
etxuat besterik gogoan

Zubi txiki bet pasaute dago
neure etxera bidea
baldin badozu borondaterik
ez dago bide luzea

Triboko landan II.

Illunberera da ta
guazian etxera
beti hemen oteko
etorri ez gera

Ametsak amets dira
orain nago pozez
zeure maitetasuna
hartzeko bihotzez

Iru mile krabelin
lau mile larrosa
zure bihotz txukuna
edertasun hutsa

Laztanen portalean
dagoz arbola bi
bata da naranjea
besteak madari

Esakune dantza

Erramuetan kukuak kuku diruz banitu bi zaku
erramuetan kukuak kuku san pedrotarako mutu

Martxo lorea, pirri lorea apirillean hobea
maiatz-lorearekin lorea, inon parerik gabea

Martxo aldean lainoak laino noraino ta bertaraino
apirillean elur malutak helduko dira haraino

Gaur erein eta biharko hila apirila ekaiz hila
apirila elai dantzak mila apirila biribila

Maiatzeko lehen eguna euri kalamidadea geuri
etxeko behiak beteko deusku bakarrik kantina erdi

Maiatz eurtisu urte ogitsu maiatz hotz urtea motz motz
maiatz infernu ekaina zeru maiatz hotz ez lasto ez bihotz

Udabarria bazterrik bazter ekainean zeru eder
ekainean hego haizerik ez uda osoan halaber

Ezin urtean bi udabarri zergaitik ezetz igarri
udabarri on pozez zorion udabarri odol barri

Bilbo Bilbo

Maitea bilbora noa
ezertxo gura badozu
amoreza firmea da ta
maite polit bat ekazu

Bilbo Bilbo esaten daure
ez dago Bilbo langorik
txakoliña edaten daure
bapere beldur bagarik

Ama gura badozu
mutirik erosi
Bilbo zaharrean dagoz
lau zirian zortzi

Lau ziri gitxi da ta
lau maraira ezkerio
askaoko iturrian
elegia dago

Banengo nengoanean
Bilboko kontzejuean
hantxe gurgutadu nauen
sagarrik zegan zirean

Bilbon barberurik asko
endemas Barrenkalean
neu bere haraxe noa
buruen min dodanean

Begoñako iturriek
baleki berbetan
zer esan euko leuke
astelehen goizetan

Mahatsak orrie zabal
Begoña ganean
neu bere hangoa naz
bai zorionian

Esango dot nik esango
ta ez naz ixilik egongo
Bilbon hasiko urtearentzat
herri gogorra da Orozko

Sardiñe begi gorrie
jakin baneutsun barrie
ez zendula pasatuko
Bilboko zubi barrie

Orozko joanda
baita Zaloara
bertako janarie
beti taloa da

Adios Atxuri ta
adios landea
Bilboko Barrenkale
kale alegrea

San Antontxu egunean

San Antontxu egunean
Mungian ferie
haraxe joan dire
Peru ta nobie.

Jai eguna dala ta
planta elegantez
galako jantzi dira
aspaldiko partez.

Ganadu ta lanabes
zarratu tratua
talo ta odolostez
ein daigun kopua.

Ardoak zuritxu bi
ta mosue gorri
geldien egoteko
ezkara etorri.

Erromerian jantzan
jente bete plaza
agarrauan, soltuan,
jotea ta balsa.

Egun onak akabu
gozatsua sari,
agur, Peru, laztan bat
mosutxu bat, Mari.

Kopla jokoa

Gaubean parrandan ta
goizean logure
sarri gatzte bat euan
guri osasune

Hamar amaiketako
eguzki beroa
ama buruen min dot
etxera banao

Ama buruen min dot
ez esan aitteri
gaubeko errondeak
galdu nuela ni

Olagizonak eta
errementariak
fraktxo zaharrak eta
begiek gorriek

Irabazten dituez
ehuneko gorriek
eurekaz kenteako
samako egarriek

Errementari baino
hoba da zesteru
lepo bete egurrez
kolko bete diru

Honek bai dantzarijek
dantzan egiteko
begira dauenari
barre eragiteko

Hau gazte jendearen
oñaren ariñe
batek hortza falta dao
besteak hagiñe

Arkondara agirian
prakaren zuloti
eta txapel txatala
belarri-ondoti

Ekin ekin gazteak
neuk esan artean
etxera joango gara
gaua in daitenean

Bitturirineko zelaien

Erreka eskinako
zueli eder baten
mutli gatzte bat euan
biboliña jotzen

Etorri nintzanean
herri honetara
enamoradu nintzen
begi baltzetara

Igetargiak argi
igeko kalkan
esalidazu maitia
non bizi zarian

Hasikera laztan bat
ostu neutsun nekez
baha haren ondoren
milla batzuk errez

Erreka bazterrean
larrosa ederrak
maitian arpegian
kolore gorriak

Bihotza minberatu
begiak ilundu
zure edertasunak
egin nau itsutu

Nor izan eta zer esan

Nor izan eta zer esan
zer esan eta nor izan
entzun esan bizi giza
aurrean goaz bizitzan

Ez da izaten irabazlea
azkarrena dihoana
helnugarraino iristen baita
nora doan dakiana

Nor izan eta zer esan...

Entzun egiten du jakintsuak
entzun eta apa galdetu
ez dakianak hitz egiten du
hitz egin eta epaitu

Nor izan eta zer esan...

Negar egiten badugu gaeuz
eguzkiri ez dalako
igetargia eta izarrak
ez ditugu ikusiko

Nor izan eta zer esan...

Ai, nik banenki!

Zahar ta gazte aligto hutsean
matrakan ibiltzen gara
arre eta so, so eta erre
ni hona banaz, zu hara

"Egurrik barik zezpalik eztan"
zahar berbak zuhur berbak dire
arbola zaharran ondoan hoba
lorak erreko balire

Ai, nik banenki!
zuk dakizun guztie
ai, nik baneinke!
zuk zeinken erdie

Zentzune heldu mantendu deigun
ta bihotz-begiek gazte
hankak lurrera josite baino
arimean muñe aske

Zaharrak atzo ta atzo dabiz
gazteak etzi ta etzi
bien artean orain eder bat
lortu arte ez deigun etsi